



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko maiatzaren 20a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako Foru Komunitateko zahar-etxeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, gizarte ekimeneko ikastetxeetan obrak egiteko dirulaguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, emaile bizien organoen transplante kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Prestakuntzaren eta Ikerketa eta Garapenaren (I+G) Planeko 2004. urterako laguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, hizkuntza eredu bat hautatzearen ondorioz joan-etorrian ibili behar duten ikasleei laguntzeko dirulaguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, 2004/2005 ikasturterako Hezkuntza Bereziko bekak eta laguntzak emateko deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, kudeatzaile informatiko berri baten ekipo osagarrien erosketaren atzerapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko langileen osasun-bajen jarraipen eta kontrolari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, hamasei urtetik beheitiko seme-alabak, garun-perlesiak joak eta Petö metodoarekin tratamendua hartzen dutenak, dituzten familiendako 2004rako dirulaguntzak banatzeko deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, nazien porrota ospatzeko Parisen egindako ekitaldietara joan ez izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Erriberri eta Zangozako barne erreformarako plan bereziak taxutzeko dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Aitzoain-Lizaso errepeidea konpontzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, argitalpen ofizialei eta propagandari buruzko estrategia aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- Galdera, errepideko garraio publikoaren sektorean antolatzen diren prestakuntza ekintzetarako dirulaguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Altsasuko hegoaldeko sarrera hobetzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Altsasuko Zuntaipe auzotik ibilgailuak ibiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Tuterako Erruki Etxean zerbitzua ematen duen Rehavital enpresari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioko kantu modalitateko matrikulazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Uxueko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko lanak berriro hasteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, sanferminetako su artifizialak Baluartetik ikusi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, sanferminetako su artifizialak Baluartetik ikusi izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Corellako Arte Sakratuko museoa berriz irekitzeko itunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Barañaingo Auditorioa fundazioarekin itunik ez sinatzeko arrazoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, “El Bocal” interes historiko eta kulturaleko multzo deklaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, A-15 autobideko txartelari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, hirutik sei urtera bitarteko haurrentzako estimulazio goiztiarreko tratamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Odol Bankuak odol-emateetan darabilen irizpideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, larrialdietan ematen diren antisorgailuen tratamenduaren doakotasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria Nekazaritza Arloko Batzarrera joan ez izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Coebro eraikuntza-enpresaren eta Patali sustatzailearen arteko gatazkari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Zangozako Andre Mariaren fatxada erromanikoa zaharberritzeko lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako Foru Komunitateko zahar-etxeei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako Foru Komunitateko zahar-etxeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako Erruki Etxeko eguneko egoitza udako oporraldian ixteari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Hasi baino lehen, galderan nahasketa bat dagoela esan beharra dago. Izan ere, eguneko zentroa eta egoitza nahasten dira. Dena den, Tuterako Erruki Etxeko eguneko zentroaz eta, hedaduraz, beste eguneko zentro batzuez, ari dela ulertzen dut, eta erantzuna horri buruzkoa izanen da.

1.- Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako Foru Komunitateko zahar-etxeek modu berean funtzionatzen al dute oporretan ixteari dagokionez?

Ez. Tuterako Erruki Etxeko eguneko zentroarekin sinatutako hitzarmenak soilik aurreikusten du urtean hamaika hilabetez irekitzea.

Aitzitik, azken hilabeteetan sinatutako hitzarmenek (Landazabal egoitzarekin, bata, eta beste, La Vaguada egoitzarekin) ez dute muga hori

jasotzen eta, hortaz, urtean hamabi hilabetez ireki behar dute.

Halaber, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuarenak diren eguneko zentroak (El Vergel egoitza eta San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoa) urte osoan irekita daudela esan behar dut.

2.- Gizarte Ongizateko Departamentuak ba al du asmorik eguneko zentroak urte osoan irekitzeko?

Aurreko erantzunean aipatu denez, bai departamentuaren mende dauden eguneko zentroak bai itunduak (galderaren xede dena izan ezik) urte osoan daude zabalik; horixe bera da Gizarte Ongizateko Departamentuak aferari buruz duen irizpidea.

3.- Ba al da itxaron zerrendarik Erruki Etxeko eguneko zentroan zein Nafarroako gainerako egoitzetan plaza bat lortzeko? Itxaron zerrendarik baldin badago, zenbat eskatzaile daude? Zer neurri hartu behar ditu Gizarte Ongizateko Departamentuak eskaerei erantzuteko?

Ez, egun ez dago itxaron zerrendarik Tutera aldean.

Iruñerriari dagokionez, hogeita hamahiru pertsonak osatzen dute eguneko zentroak erabiltzeko itxaron zerrenda. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak beste zentro batzuekin sinatu nahi ditu hitzarmenak, dauden premiak asetze aldera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 23an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, gizarte ekimeneko ikastetxeetan obrak egiteko dirulaguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak gizarte ekimeneko ikastetxeetan obrak egiteko dirulaguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du gizarte ekimeneko ikastetxeetan obrak egiteko dirulaguntzen deialdirako agiriak aurkezteari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

1.- Hezkuntza kontseilariaren ekainaren 3ko 137/2004 Foru Aginduak (2004ko ekainaren 28ko 77. NAO) gizarte ekimeneko ikastetxeetan obrak egiteko dirulaguntzen deialdirako oinarriak onetsi zituen.

Aipatu deialdiaren 6. oinarriak eskabideak ondoko agiriekin batera, besteak beste, aurkeztu behar direla xedatzen du: “b) Ikastetxearen adierazpena, non azalduko den zenbat ikaspostu dituen eta ikastetxearen hobekuntzak zenbat ikasleri onura ekarriko dien” eta “e) 2003ko ekitaldiko Sozietate Zergako agiriak.”

2.- Hezkuntza Departamentuak dirulaguntza publikoak emateko hainbat prozeduratan eskatzen ditu eskatzaileak bere zerga eginbeharrak gaurkoturik dituela frogatzeko agiria, Foru Komunitateko administrazioaren eta haren organismo autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 8.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz; izan ere, bertan ezartzen da onuradunaren betebeharrak bat dela dirulaguntza kobratu aurretik “eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezartzen duen eran, frogatzea Nafarroako Ogasun Publikoarekin dituen betebeharrak bete dituela.”

Legearen eskakizun horren aurrean, bi aukera balia daitezke dirulaguntzak emateko deialdi publi-

koak egiterakoan: onuradunek agiri horiek aurkezte, edo prozeduraren instrukzioa egiten duen organo edo unitateak agiri horiek ofizios egiaztatzea eta espedientearen sartzeta, dirulaguntza ordaindu aurretik.

Egia da Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan herritarren eskubide sorta zabala aitortzen dela, eta horien artean herritarrek eskubidea dutela “ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplikatu dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere”. Eskubide horiek zuzenean aplikatzen badira ere, tarteko arauen beharrik gabe, horiek gauzatzeko zerga aitorpenei eta horietan adierazten diren datuei buruzko beste legezko arau batzuk ere interpretatu behar dira.

Alde batetik, kontuan hartu behar da Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra; izan ere, 9.1 h) artikuluan ezartzen denez, herritarrek “eskubidea du, legeek agintzen duten moduan, tributu administrazioak lortu dituen datuak, txostenak edo aurrekariak sekretuak izateko. Ez da zilegi izan horiek erabiltzea Administrazioak kudeatu behar dituen tributu edo baliabideak egiteaz aplikatzeko baizik, eta ezin izan zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeek aurreikusirik kasuetan salbu.”

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluan aitortutako eskubidearen mugak modu egokian ezartzeko kontuan hartu behar den bigarren araua da Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.

3.- Foru Komunitateko Administrazioeko departamentuen arteko lankidetzaren printzipioaren ondorioz administrazioek datuak elkarri eskatzeko aukerak ez du inolaz ere baztertzen interesdunen baimena lortzeko beharra. Halaber, lortutako datuak modu egokian erabiltzeko, bermeak eta hainbat datu emateko beharra ezartzen dira arau horretan: datu pertsonalak, batzuetan (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, pertsona fisikoentzat, eta Identifikazio Fiskaleko Kodea, pertsona juridikoentzat edo pertsonalitaterik gabeko entitateentzat) eta erresebatuak, besteetan, hala nola Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dituen datuak ikusi ahal izateko sarbide-gakoa.

Horren alde agertu zen estatuko legegilea azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarria eman zuenean (Neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legearen bidez sartu zuen). Hain zuzen, xedapen horrek ezartzen duenez, aurreko idatz-zatietan aipatzen diren eskaera eta jakinarazpenekin batera aurkeztu beharreko tributu ziurtagirien nahiz Gizarte Segurantzakoen ordezkasun kasuko datuak emanen dizkiote entitate eskudunek organo kudeatzaileari, baldin eta interesdunak berariazko baimena ematen badu.

Ildo beretik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.3 artikulua ezartzen du onuradunak eskaera aurkezteak berekin dakarrela organo kudeatzaileari baimena ematea Estatuko Tributu Administrazioaren Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

4.- Hezkuntza Departamentuak ikastetxe itunduetako ikaspostu kopurua ezagutzen badu ere, proposatutako hobekuntzak zenbat ikasleri onura

ekarriko dien ere eskatu zuen, deialdia ebazteko. Helburua beste datu bat izatea zen, "gelak handitzea," "espazioak birbanatzea," "dauden espazioak aldatzea," "instalazioak hobetzea" bezalako kontzeptuak sartzen baitira obra proiektuetan, eta espazio berriek (gimnasioa, jantokia, eta abar) eragin aldakorra dute onura zuzenekoa jasotzen duen ikasle kopuruarengan, ikastetxeko ikasle kopuru osoarekiko.

5.- Hezkuntza Departamentuak dirulaguntzen deialdi publikoak aztertuko ditu, baita haietan beharrezko aurreikuspenak sartzeko aukera aztertuko ere, beharrezko zerga ziurtagiriak lortzea helburu duten baimenak eskuratzearen interesatuen aldetik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 28an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, emaile biziaren organoen transplante kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak emaile biziaren organoen transplante kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumberras Iñigo andreak galdera egin du emaile biziaren organoen birlanaketa kopuruari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

1. Azken bost urte hauetan, emaile biziaren biltzurrun-birlanaketa egin dira (bata, 2000. urtean, eta bestea, 2003. urtean) eta emaile biziaren hiru gibel-birlanaketa (bi, 2003. urtean, eta beste bat, 2004. urtean).

2.- Emaile biziaren birlanaketak abenduaren 30eko 2070/1999 Errege Dekretuak xedatutako kalitate berme guztiekin egiten dira. Aipatu dekretuak giza organoak lortzeko eta klinikoki erabiltzeko jarduketak eta organoen eta ehunen emate eta birlanaketari buruzko lurralde koordinazioa arautzen ditu, eta ondokoa zehazten du, besteak beste:

a- Emaileak adin nagusikoa, osasun egoera ona eta buru-ahalmen beteak izan behar ditu.

b- Bere erabakiaren ondorioen berri eman behar zaio aldez aurretik, eta baimena espresuki, libreki, modu desinteresatuan eta bere kontzientziaren jabe dagoela eman behar du.

c- Emailearen osasun egoera fisiko eta mentala organoa erauzi eta birlanketa behar du(t)ena ez den beste mediku batek egiaztatu beharko du. Aipatu medikuak ondokoaren berri eman behar du: ebakuntza kirurgikoak ekar ditzakeen arriskuak, izan daitezkeen ondorio somatiko edo psikologikoak, bere bizitza pertsonal, familiar eta profesionalean gerta daitezkeen ondoreak, baita

birlandaketak hartzaileari ustez ekarriko dizkion onurak ere.

Aurreko guztia osasun-ziurtagiri bidez egiaztatuko da. Ziurtagiriak osasun egoera, emandako informazioa eta interesatuak libreki adierazitako erantzun eta zioak bildu beharko ditu, baita berarengan kanpoko presioa egin izanaren susmoa ere, halakorik gertatuz gero. Halaber, ziurtagiriak zeregin horietan medikuarekin elkarlanean aritutako beste profesionalen zerrenda nominala ere bilduko du.

d- Emaille bizen organoak erauziko dira baldin eta birlandaketa oso arrakasta handikoa izatea espero bada eta emaillearen baimen librea ukitzen ez bada. Birlandaketa eginen duen ospitaleko etika batzordearen txostena beharrezkoa izan da.

Ezin izanen da, inolaz ere, emaille bizen organorik erauzi edo erabili arrazoi ekonomikoa edo beste mota batekoa (soziala edo psikologikoa) tartean dagoela sumatzen bada.

e- Emaille bizen organoak erauzi ahal izateko, interesatuak idatziz eman beharko du baimena,

erregistro zibileko epailaren aurrean eta birlandaketa eginen duen kirurgialaria nahiz ospitalean birlandaketak egiteko baimenak emateko arduraren medikua aurrean daudela. Horietako edozein ager daiteke ematearen aurka emailleak emandako baimenari buruz dudaren bat izanez gero.

f- Agiriaren beharrezko sinaduraren eta organoa ematearen artean 24 orduko tartea egon behar du, derrigorrez, eta emailleak edozein unetan baliogabe dezake erabakia, azalpenik eman beharrik gabe.

3.- Bai. Hartzaile guztiek dakite emaille bizen batek eman duela organoa. Organoaren emailleari ematen zaio informazio bera (organoa emateak sortu ditzakeen arriskuak,...) ematen zaio hartzaileari.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 27an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Prestakuntzaren eta Ikerketa eta Garapenaren (I+G) Planeko 2004. urterako laguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak Prestakuntzaren eta Ikerketa eta Garapenaren (I+G) Planeko 2004. urterako laguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Prestakuntzaren eta ikerketa eta garapenaren (I+G) pla-

neko laguntzen deialdirako agiriak aurkezteari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

1.- Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiaren ekainaren 18ko 116/2004 Ebazpenak (uztailaren 5eko 80. NAO) Prestakuntzaren eta ikerketa eta garapenaren (I+G) planeko laguntzak onetsi zituen.

Aipatu deialdiaren 4. oinarrian xedatzen da ondoko agiriak aurkeztu behar direla, besteak beste, eskabidearekin batera: "g) Eskatzailea elbarritua izatearen legezko aitortpena egiaztatzen duen agiria, Autonomia Erkidego bakoitzean legezko eskumena duten organoek emana" eta "j) Bizikidetzaren unitateko partaideen azken PFEZren aitortpena. Bizikidetzaren unitateko partaideren batek edo gehiagok aitortpena aurkezteko betebeharririk ez dutenean, 2003ko dirusarrerak kreditatzen dituzten ziurtagiriak ekarriko dira."

Bi agiriak eskatzea deialdiaren beraren testuingurua kontuan hartuta interpretatu behar da. Persona fisikoei zuzendutako laguntzen programetan, planaren barruan, betiere, eskatzailearen egoera sozioekonomikoak ez dira baldintzatzat hartzen laguntzak ematerakoan. Aldiz, bizikidetzaren unitateko familia errenta erabilgarria hainbat tarte zehatzetakoa baino handiagoa bada, laguntza jasotzeko eskubidea mantendu ahal da oraindik. Baldintza sozioekonomikoak (minusbaliotasun kualifikatua egotea eta familia errenta erabilgarria, besteak beste) diskriminazio positiborako faktoreak dira, eskatzaileen puntuazioari dagokionez, ikasleen espediente akademikoarekin batera.

Aipatu agiriak eskatzeak "ez du agerian urratzen 30/1992 Legearen 35 f) artikulua xedatutakoa", agiri horiek aurkeztea, berez, "alegazioa" delako, hainbat meritu eta baldintzaren dokumentu-froga izateaz gain. Hau da, eskatzaileak minusbaliotasuna duela alegatzen ez badu, horrek esan nahi du ez duela minusbaliotasunik edo minusbaliotasuna alegatu nahi ez duela. Halaber, eskatzaileak bizikidetzaren ziurtagiria aurkezten ez badu, PFEZren aitortpenekin, edo, hori izan ezean, azken zerga ekitaldian izandako dirusarreraren ziurtagiriek batera, ulertzen da alegatzen ez duela hori puntuaziorako.

Orobat esan beharra dago ezen interesdun batzuek espresuki adierazten dutela ez dituztela hainbat datu eman nahi, batez ere, zerga datuak, beharrezkoa ez denean (eta kasu honetan ez da beharrezkoa). Izan ere, litekeena da ikasketarako laguntzen deialdi orokorraren gehieneko zein gutxienezko tarteak ezagututa (Ikerketa eta garapeneraren (I+G) laguntzetarako planak horietatik hartzen dituzten kontuan puntuazioa zehazterakoan), bide horretatik puntuazio altuagorik lortuko ez dutela jakitea eta zerga administrazioa ez den beste organo batzuei zerga datuak eman nahi ez izatea. Bidezko jarrera izanik interesdunen aldetik, administrazioak errespetatu egin behar du.

Beste alde batetik, 2.5 oinarrian (Agiriez eta hauen trataeraz kontuan hartu beharreko arauak) ondokoa aurreikusten da: "g) letran aipatutako elbarritua izatearen aitortpena egiaztatzen duen agiria, h) letran aipatutako lan bizitzari buruzko

egiaztatzea edota j) letran aipatutako bizikidetzaren unitateko baten edo gehiagoren PFEZren aitortpenak edota, aitortpena aurkezteko betebeharririk ez dagoenean, 2003. urteko diru-sarreraren agiriak falta direnean edo osorik bete ez direnean, eskaerak hurrengo faseko ohiko izapidea jarraitu ahalko du, atal horietan "huts" puntuazioa edukiz."

2.- Eskatzaileek bete beharreko baldintzetako bat haxe dugu: "Nafarroan erroldaturik egon izana, eskaera egin aurreko azken bi urteetan jarraian, gutxienez." Horrek, berez, ez du esan nahi minusbaliotasuna Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizateko Departamentuak aitortu dionik; aldiz, beste edozein administraziok aitortua izan daiteke, eskatzailea bizi zenekoak, adibidez.

PFEZren aitortpenei dagokionez, bai hitzarmen ekonomikoak bai zergari buruzko Nafarroako araudiak ezartzen dute zergapekoa zergaldiaren erdian baino gehiagoan de facto bizi izandako administrazioa dela zerga administrazio eskuduna aipatu zerga ordaintzeko. Eta hori horrela da bizikidetzaren unitateko partaide bakoitzarentzat, adibidez, bekaeren eskatzailearen seme-alaba batentzat (baldintza 2003-12-31n berarekin bizi izatea da, eta ez azken bi urteetan). Beraz, beste zerga administrazioetan aurkeztutako errenta aitortpenak aurkez daitezke, eta, arrazoi horrengatik, besteak beste, ondoko lerrokada sartu da deialdian: "Unitateko partaide batek edo gehiagok Foru Administrazioa ez den beste administrazio batean ordaintzen badituzte zergak, foru legeriaren arabera PFEZren munta baliokideak hartuko dira kontuan, kasu bakoitzean aplikagarri diren arauak jarraituz, zerga zorraren kitapena egiten den modua aintzat hartu gabe."

Horrengatik guztiagatik, 4 g) eta 4 j) oinarrietan eskatutako agiriak ez dute azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikulua xedatutakoa urratzen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 28an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, hizkuntza eredu bat hautatzearen ondorioz joan-etorrian ibili behar duten ikasleei laguntzeko dirulaguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak hizkuntza eredu bat hautatzearen ondorioz joan-etorrian ibili behar duten ikasleei laguntzeko dirulaguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du hizkuntza eredu bat hautatzearen ondorioz joan-etorrian ibili behar duten ikasleentzako dirulaguntzen deialdirako agiriak aurkezteari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

1.- Hezkuntza kontseilariaren ekainaren 24ko 166/2004 Foru Aginduaren bidez (abuztuaren 23ko 101. NAO), hizkuntza eredu bat hautatzearen ondorioz joan-etorrian ibili behar duten ikasleei laguntzeko 2004/2005 ikasturteko dirulaguntzen deialdia onetsi da.

Deialdiaren 8 c) arauak xedatzen du eskabideak ondoko agiriekin batera aurkeztu behar direla: "Famili unitateko kide guztien 2003ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Aitorpenen fotokopiak, bertan azaldurik unitate osoaren edo zergadun bakoitzaren helbide deklaratu eta zerga-oinarria eta/edo PFEZ aitorpena egin beharrik ez duten 2002ko familiaren dirusarreraren zinpeko aitorpena."

2.- Hezkuntza Departamentuak dirulaguntza publikoak emateko hainbat prozeduratan eskatzen du eskatzailearen familia unitateak bere zerga eginbeharrak gaurkoturik dituela frogatzeko agiria, Foru Komunitateko administrazioaren eta haren organismo autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 8.2 e) artikuluan xedatutakoari jarraikiz; izan ere, bertan ezartzen da onuradunaren betebeharrak

ko bat dela dirulaguntza kobratu aurretik "eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezartzen duen eran, frogatzea Nafarroako Ogasun Publikoarekin dituen betebeharrak bete dituela".

Legearen eskakizun horren aurrean, bi aukera balia daitezke dirulaguntzak emateko deialdi publikoak egiterakoan: onuradunek agiri horiek aurkezte, edo prozeduraren instrukzioa egiten duen organo edo unitateak agiri horiek ofizioz egiaztatzea eta espedientean sartzea, dirulaguntza ordaindu aurretik.

Egia da Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan herritarren eskubide sorta zabala aitortzen dela, eta horien artean herritarrek eskubidea dutela "ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplikatzea dagoen arauetara eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere". Eskubide horiek zuzenean aplikatzen badira ere, tarteko arauen beharrik gabe, horiek gauzatzeko tributu-aitorpenei eta horietan adierazten diren datuei buruzko beste arau batzuk ere interpretatu behar dira.

Alde batetik, kontuan hartu behar da Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra; izan ere, 9.1 h) artikuluan ezartzen denez, herritarrek "eskubidea du, legeek agintzen duten moduan, tributu administrazioak lortu dituen datuak, txostenak edo aurrekariak sekretuak izateko. Ez da zilegi izan horiek erabiltzea Administrazioak kudeatu behar dituen tributu edo baliabideak egitez aplikatzeko baizik, eta ezin izan zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeek aurreikusirik kasuetan salbu".

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluan aitortutako eskubidearen mugak modu egokian ezartzeko kontuan hartu behar den bigarren araua da Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.

3.- Foru Komunitateko administrazioeko departamentuen arteko lankidetzaren printzipioaren ondorioz administrazioek datuak elkarri eskatzeko aukerak ez du inolaz ere baztertzen interesdunen baimena lortzeko beharra. Halaber, lortutako datuak modu egokian erabiltzeko, bermeak eta hainbat datu emateko beharra ezartzen dira arau horretan:

datu pertsonalak, batzuetan (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, pertsona fisikoentzat, eta Identifikazio Fiskaleko Kodea, pertsona juridikoentzat edo pertsonalitaterik gabeko entitateentzat) eta erreserbatuak, besteetan, hala nola Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dituen datuak ikusi ahal izateko sarbide-gakoa.

Horren alde agertu zen estatuko legegilea azaroaren 26ko 30/1992 legearen hemezortzigarren xedapen gehigarria eman zuenean (Neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legearen bidez sartu zuen). Hain zuzen, xedapen horrek ezartzen duenez, aurreko idatz-zatietan aipatzen diren eskaera eta jakinarazpenekin batera aurkeztu beharreko tributu ziurtagirien nahiz Gizarte Segurantzakoen ordezkasun kasuko datuak emanen dizkiote entitate eskudunek organo kudeatzaileari, baldin eta interesdunak berariazko baimena ematen badu.

Ildo beretik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.3 artikulua ezartzen du onuradunak eskaera aurkezteak berekin dakarrela organo kudeatzaileari baimena ematea Estatuko Tributu Administrazioaren Agentziak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko

4.- Hezkuntza Departamentuak dirulaguntzen deialdi publikoak aztertuko ditu, baita haietan beharrezko aurreikuspenak sartzeko aukera aztertu ere, beharrezko zerga ziurtagiriak lortzea helburu duten baimenak eskuratzearren interesatuen aldetik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 28an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, 2004/2005 ikasturterako Hezkuntza Bereziko bekak eta laguntzak emateko deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak 2004/2005 ikasturterako Hezkuntza Bereziko bekak eta laguntzak emateko deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du hezkuntza bereziko bekak eta laguntzak emateko deialdian agiriak aurkezteari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

1.- Hezkuntza kontseilariaren ekainaren 24ko 165/2004 Foru Aginduaren bidez (abuztuaren 16ko 98. NAO), 2004/2005 ikasturterako hezkuntza bereziko bekak eta laguntzak deitu dira.

Aipatu deialdiaren 5 d) oinarriak ezartzen du ondoko agiriak aurkeztu behar direla eskabidearekin batera, besteak beste: "Eskatzailearen famili unitateko kide guztiek aurkeztu dituzten 2003ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenen fotokopia osoa".

2.- Hezkuntza Departamentuak dirulaguntza publikoak emateko hainbat prozeduratan eskatzen du eskatzailearen familia unitateak bere zerga eginbeharrak gaurkoturik dituela frogatzeko agiria, Foru Komunitateko administrazioaren eta haren organismo autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 8,2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz; izan ere, bertan ezartzen da onuradunaren betebeharrak bat dela dirulaguntza kobratu aurretik "eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezartzen duen eran, frogatzea Nafarroako Ogasun Publikoarekin dituen betebeharrak bete dituela".

Legearen eskakizun horren aurrean, bi aukera balia daitezke dirulaguntzak emateko deialdi publikoak egiterakoan: onuradunek agiri horiek aurkez-

tea, edo prozeduraren instrukzioa egiten duen organo edo unitateak agiri horiek ofizios egiaztatzea eta espedientean sartzea, dirulaguntza ordaindu aurretik.

Egia da Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan herritarren eskubide sorta zabala aitortzen dela, eta horien artean herritarrek eskubidea dutela "ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplikatzen dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere". Eskubide horiek zuzenean aplikatzen badira ere, tarteko arauen beharrik gabe, horiek gauzatzeko tributu aitortpenei eta horietan adierazten diren datuei buruzko beste arau batzuk ere interpretatu behar dira.

Alde batetik, kontuan hartu behar da Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra; izan ere, 9.1 h) artikuluan ezartzen denez, herritarrak "eskubidea du, legeek agintzen duten moduan, tributu administrazioak lortu dituen datuak, txostenak edo aurrekariak sekretuak izateko. Ez da zilegi izan horiek erabiltzea Administrazioak kudeatu behar dituen tributu edo baliabideak egitez aplikatzeko baizik, eta ezin izan zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeek aurreikusirik kasuetan salbu".

Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluan aitortutako eskubidearen mugak modu egokian ezartzeko kontuan hartu behar den bigarren araua da Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.

3.- Foru Komunitateko administrazioeko departamentuen arteko lankidetzaren printzipioaren ondorioz administrazioek datuak elkarri eskatzeko aukerak ez du inolaz ere baztertzen interesdunen baimena lortzeko beharra. Halaber, lortutako datuak modu egokian erabiltzeko, bermeak eta hainbat datu emateko beharra ezartzen dira arau horretan: datu pertsonalak, batzuetan (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, pertsona fisikoentzat, eta Identifikazio Fiskaleko Kodea, pertsona juridikoentzat edo pertsonalitate gabeko entitateentzat), eta erreserbatuak, besteetan, hala nola Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dituen datuak ikusi ahal izateko sarbide-gakoa.

Horren alde agertu zen estatuko legegilea azaroaren 26ko 30/1992 legearen hemezortzigarren

xedapen gehigarria eman zuenean (Neurri fiskal, administratibo eta sozialei buruzko abenduaren 27ko 24/2001 Legearen bidez sartu zuen). Hain zuzen, xedapen horrek ezartzen duenez, aurreko idatz-zatietan aipatzen diren eskaera eta jakinarazpenekin batera aurkeztu beharreko tributu ziurtagirien nahiz Gizarte Segurantzakoen ordezkasun kasuko datuak emanen dizkiote entitate eskudunek organo kudeatzaileari, baldin eta interesdunak berariazko baimena ematen badu.

Ildo beretik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 23.3 artikulua ezartzen du onuradunak eskaera aurkezteak berekin dakarrela organo kudeatzaileari baimena ematea Estatuko Tributu Administrazioaren Agentziak eta

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak eskatzeko.

4.- Hezkuntza Departamentuak dirulaguntzen deialdi publikoak aztertuko ditu, baita haietan beharrezko aurreikuspenak sartzeko aukera aztertzeko ere, beharrezko zerga ziurtagiriak lortzea helburu duten baimenak eskuratzearen interesatuen aldetik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 28an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, kudeatzaile informatiko berri baten ekipo osagarrien erosketaren atzerapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak kudeatzaile informatiko berri baten ekipo osagarrien erosketaren atzerapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du kudeatzaile informatiko berri baten hornidura kontratazio ekipo osagarriak erosteko kontratazio espedientea argitara emateko atzerapenari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

1. Zergatik bidali zen aipatu adjudikazioari buruzko iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialera hainbesteko atzerapenarekin?

Espedienteak pilatu eta, ondorioz, nahi gabeko atzerapena izan delako.

2. Zer ekipo osagarri adjudikatu dira?

Hemezortzi lan-gune, ondokoa dutenak: sistema eragilea barne duten Positron ekipo informatikoak (prestazio handiko Pentium IV ordenagailuak) eta hiru monitoretarako bideo-txartela eta konmutadorea, sistemarekin lotzeko eta konmutazio-matrizearekin integratzeko TABIC txartelaz gain.

3. Zein da horiek erostearren arrazoia?

Operadoreek erabiltzen zituzten ekipoak kontratuaren hasieran (1999) erositakoak ziren. Denbora luzez erabili dira, beraz, eta, gainera, etengabe aritu behar dute, eta teknologikoki zaharkitu samarrak zeuden jada. Operadoreek herritarrei zerbitzurik onena ematen dietela bermatzearen, beharrezkoa ikusi zen operadoreen lan-guneetako ekipamenduak teknologiararen aldetik ahalik eta gaurkotuen edukitzea, operadoreek euren lana baldintzarik onenetan egin ahal izan dezaten. Positron sistemaren II. fasea ezartzeko une egokiena zela erabaki zen, eragin urri-urria izanen baitzuen operadoreek emandako zerbitzuan. Positron sistemarekin integratu eta bateratzea funtsezkoa zen. Izan ere, prozesuaren arrakasta % 100ean bermatu behar zen, larrialdiak kudeatzeko zerbitzua baita. Beharrian teknikoak zeuden tartean, beraz, Nafarroako Gobernuko Larrialdietako Deiak Koordinatu eta Laguntzeko Zentrorako (SOS Nafarroarako) kudeatzaile informatiko berria erabat ezartzeko egungo sistemaren aldaketa egoki, azkar eta segurua bermatzeko.

4. Zergatik adjudikatu dira publizitaterik eta lehiarik gabeko prozedura negoziatuaren bidez?

Nafarroako administrazio publikoetako kontratuei buruzko Foru Legearen 80.4 b) artikuluan hori xedatzen delako; izan ere, entrega osagarria izan zen, zegoen hornidura handitzea zekarrena, eta horrek hornitzaile berak egitea eskatzen zuen.

5. Zergatik egin zaio adjudikazioa Positron Public Safety Systems, Inc. enpresari?

Esan bezala, hasierako hornitzaileak (Positron P.S.S.) egin beharreko entrega osagarria izan da. Kontratututako hornidura handitu behar zen, eta hornitzailea aldatzea ez zen bideragarria, beste ezaugarri teknikoak zituen materiala erosi eta Positron P.S.S. enpresarekin kontratatutako sistemarekin bateraezintasunak eraginen ahalko baitzuten. Izan ere, elementu batzuk (oinarri-plaka,

egun merkatuan saltzen diren oinarri-plaka estandarretako bat ez dena, eta komunikazio-txartela, adibidez) zein kasu honetan beharrezkoak diren integrazio eta komunikazio lanak Positron P.S.S. enpresak soilik hornitu zitzakeen. Labur esanda, sistemaren berariazkotasun teknikoak eskatzen du Positron P.S.S. enpresak egitea hornidura handitzea, hau da, aipatutako ekipoak ezartzea, euren elementu guztiak, bai hasieran hornitutakoak bai berriak, bateragarriak izate aldera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 28an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Galdera, Hezkuntza Departamentuko langileen osasun-bajen jarraipen eta kontrolari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Hezkuntza Departamentuko langileen osasun-bajen jarraipen eta kontrolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Hezkuntza Departamentuko langileen osasun-bajen jarraipen eta kontrolari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

1.- Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuak ondoko jarraipena eta kontrola egiten du: bajak erregistratzea, egiaztatzea eta altak erregistratzea, baita departamentuari atxikitako langile irakasleen zein langile ez irakasleen osasun-bajek sortutako ordezkapenen iraupena ere.

2.- Osasun-bajen egondako langile irakasleei ordezkapenak egiteak ekarritako gastua 5.405.562,31 eurokoa izan zen pasa den ikasturtean.

3.- Osasun-bajen egondako langile ez irakasleei ordezkapenak egiteak ekarritako gastua 450.883,37 eurokoa izan zen pasa den ikasturtean.

4.- Pasa den ikasturtean zenbat langilek hartu zuten baja medikoa haurdunaldiagatik galdetu zait, baina horri buruzko datu fidagarriak ez dagoela esan beharra dago, diagnostikoa ez baita zehazki biltzen baja-parteteetan.

Beheko informazioak 2003-2004 ikasturtean amatasunagatik hartutako bajak biltzen ditu:

- 80 amatasun-baja lehen hezkuntzan.
- 71 amatasun-baja bigarren hezkuntzan.
- 20 amatasun-baja langile ez irakasleen artean.

2003-2004 ikasturtean amatasunagatik hartutako bajen batez besteko egun kopurua 111,60koa da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 28an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, hamasei urtetik beheitiko seme-alabak, garun-perlesiak joak eta Petö metodoarekin tratamendua hartzen dutenak, dituzten familiendako 2004rako dirulaguntzak banatzeko deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak hamasei urtetik beheitiko seme-alabak, garun-perlesiak joak eta Petö metodoarekin tratamendua hartzen dutenak, dituzten familiendako 2004rako dirulaguntzak banatzeko deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel Izu Beloso jaunak galdera egin du garun-perlesia duten seme-alaben familiendako dirulaguntzak banatzeko deialdian agiriak aurkezteari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Osasun Departamentuak deialdi publikoen bidez dirulaguntza publikoak emateko eskatzen ditu eskatzaileak bere zerga eginbeharrak gaurkoturik dituela frogatzeko agiria, Foru Komunitateko administrazioaren eta haren organismo autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 8.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz; izan ere, bertan ezartzen da onuradunaren betebeharrak bat dela dirulaguntza kobratu aurretik "eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak ezartzen duen eran, frogatzea Nafarroako Ogasunarekin dituen betebeharrak bete dituela".

Legearen eskakizun horren aurrean, bi aukera balia daitezke dirulaguntzak emateko deialdi publikoak egiterakoan: onuradunek agiri horiek aurkeztea, edo prozeduraren instrukzioa egiten duen organo edo unitateak agiri horiek ofizios egiaztatzea eta espedientean sartzea, dirulaguntza ordaindu aurretik.

Egia da Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan herritarren eskubide sorta zabala aitortzen dela, eta horien artean herritarrek eskubidea dutela "ez aurkezteko kasuan kasuko prozedurari aplikatzea dakizkiokeen arauetan eskatzen ez den agiririk, ezta horretan diharduen administrazioak dagoeneko bere esku duen agiririk ere". Eskubide horiek zuzenean aplikatzen badira ere, tarteko arauen beharrik gabe, horiek gauzatzeko tributu aitortzei eta horietan adierazten diren datuei buruzko beste arau batzuk ere interpretatu behar dira. Eta horixe da Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren (9.1 h artikulua) zein Datu pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren kasua.

Foru Komunitateko administrazioeko departamentuen arteko lankidetzaren printzipioaren ondorioz administrazioek datuak elkarri eskatzeko aukerak ez du inolaz ere baztertzen interesdunen baimena lortzeko beharra. Halaber, lortutako datuak modu egokian erabiltzeko, bermeak eta hainbat datu emateko beharra ezartzen dira arau horretan: datu pertsonalak, batzuetan (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia, pertsona fisikoentzat, eta Identifikazio Fiskaleko Kodea, pertsona juridikoentzat edo pertsonalitaterik gabeko entitateentzat) eta erreserbatuak, besteetan, hala nola Ekonomia eta Ogasun Departamentuak dituen datuak ikusi ahal izateko sarbide-gakoa.

Dena den, Osasun Departamentuak iragarriko dituen deialdi guztiak aztertuko ditu, Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikulua xedatutakoa zorrotz-zorrotz betetzearren.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 29an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

Galdera, nazien porrota ospatzeko Parisen egindako ekitaldietara joan ez izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak nazien porrota ospatzeko Parisen egindako ekitaldietara joan ez izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo

Valencia andreak galdera egin du nazien porrota ospatzeko Parisen egindako ekitaldietara joan ez izanari buruz. Hona hemen Toki Administrazioako kontseilari eta Gobernuako eledunaren erantzuna.

Gobernu zentralak ez zuen Nafarroako Gobernua gonbidatu nazien porrota ospatzeko Parisen 2004ko abuztuan egindako ekitaldi ofizialetara joateko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailean

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Erriberri eta Zangozako barne erreformarako plan bereziak taxutzeko dirulaguntzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Erriberri eta Zangozako barne erreformarako plan bereziak taxutzeko dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du, Erriberri eta Zangozako udalek eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak barne erreformarako plan bereziak erredaktatzeko izenpetu dituzten lankidetzak hitzarmenei buruz, eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak aintzat hartzen du Erriberri eta Zangozako alde historikoen garrantzia merindadeen garapen turistikoari begira, herri horien ikur izaera eta euren ondare historikoa kudeatzen egin duten ahalegina. Hori dela eta, jasotako lankidetzak eskaerari (dirulaguntzaz haratago doana, bidenabar esanda) baiezkota eman dio, eta hitzarmen bat gauzatu; bertan, bi aldeek erabaki dituzte libreki lankidetzak horren baldintzak, besteak beste plan berezia egiteko kalkulatu den aurrekontua eta finantzazioa banatzeko modua ere.

Alde historiko horien garrantzia dela eta, ahalegin berezia eginen da halaber haien hirigintza planifikazioan, hau da, departamentu honen arduraren eta eskumena den gai horretan. Ahalegin berezi

hori plan (berezi) bat taxutzen gauzatzen da, edozein herri egin beharreko planeamendu ohikoari gehitzen zaiona (aipatutako herriek badute planeamendu ohiko hori, departamentu honek diruz lagunduta erredaktatu zena).

Parlamentaria ohartarazi behar dugu Nafarroako Gobernuak egindako ahalegina ez dela neuritzen soilik bere gain hartzeko prest dagoen planaren kostuaren portzentaje, baizik eta planak hartzen duen zenbateko osoan. Ildo horretan baliagarria izan daiteke Vianako BBBPBarekin alderatzea: bertan kostua 65.000 eurokoa izan zen, eta Erriberrin, berriz, 122.378 eurokoa (egindako kontratuen kostu erreala) eta Zangozarako 100.000 eurokoa aurreikusi da. Ikusten denez, ahalegin nabaria da, bete beharreko lanen kalitatean eragina izanen duena, dudarik gabe.

Azkenik, honakoa nabarmendu behar da:

- Emandako laguntzak aldeek libreki onarturiko lankidetzak hitzarmen baten barruan ezarri dira.

- Hitzarmena eztabaidatzeko prozesuan ez zaigu helarazi dirulaguntza handiagoa jasotzeko inolako eskabide formal edo ez-formalik, ez eta neurri hori –salbuespenezkoa, 145/2002 Dekretuaren arabera– justifikatzeko dokumentaziorik edo argudiorik ere.

- Alde historiko hauek merezi duten arreta berezia kontuan hartua du departamentu honek, barne erreformarako plan berezi bana egitea bere aurrekontuen bidez hein handi batean finantzatu baitu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 28an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, argitalpen ofizialei eta propagandari buruzko estrategia aldatze-ari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak argitalpen ofizialei eta propagandari buruzko estrategia aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren argitalpen ofizialetarako eta propagandarako estrategia aldatu izanari buruz. Hona hemen Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Gobernuko eleduna den aldetik.

Komunikazio Zuzendaritza Nagusiak publikizitatea kudeatzeko moduan ez da inolako estrategia

aldaketarik izan, eta Nafarroako Gobernuko eleduna den aldetik Toki Administrazioako kontseilariak azaroaren 11n emaniko 1/2003 Foru Aginduan ezarritakori lotzen zaio, alegia 3. artikuluan agintzen duenari: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren publikizitatea Nafarroako hedabideak (prentsa, irratia eta telebista) bere dituzten enprekin kontratatuko da, haietariko bakoitzak Foru Komunitatean duen zabalkundearen arabera.

2004. urtean Nafarroako Gobernuak Nafarroako lau egunkaritan argitaratu du publikizitate instituzionala, lehen ziren biei ("Diario de Navarra" eta "Diario de Noticias") beste bi gehitu zaizkiolako ("Vivir Pamplona" eta "La Estafeta de Navarra"). Argitarapen horiek aipatutako foru agindua betez egiten dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailean

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Aitzoain-Lizaso errepidea konpontzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak Aitzoain-Lizaso errepidea konpontzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervas jaunak galdera egin du Aitzoain-Lizaso errepidea konpontzeko aurreikuspenei buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Ikusirik Aitzoaingo bidegurutzetik Lizasora (Ultzama) doan NA-4100 errepidearen hondamena:

Noiz eta zer baldintza teknikorekin konponduko du departamentuak Aitzoain-Ultzama errepidea?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ongi dakienez zein hondaturik dagoen errepide hori Iruñeko Zainketa Zentroko urteko programazioan sarturik dauka Aitzoain-Urritza NA-4100 errepidearen zorua zenbait tokitan konpontzea (Aitzoain-Lizaso tartea). Jarduketa horiek hurrengo bi hilabeteetan gauzatuko dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 27an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, errepideko garraio publikoaren sektorean antolatzen diren prestakuntza ekintzetarako dirulaguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak errepideko garraio publikoaren sektorean antolatzen diren prestakuntza ekintzetarako dirulaguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du errepideko garraio publikoaren sektorean antolatzen diren prestakuntza ekintzetarako dirulaguntzen deialdian agiriak aurkeztu beharrari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Zergatik eskatzen zaie herritarrei Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak azaroaren 11n eman zuen 720/2004 Foru Aginduan, errepideko garraio publikoaren sektorean antolatzen diren prestakuntza ekintzetarako dirulaguntzen deialdia onesten duen horretan, Foru Komunitateko administrazioak jadanik badaukan dokumentazioa, azaroaren 26ko 30/1992 legearen 35. f) artikulua ezartzen duenaren urraketa agerikoa eginez?

1. Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak uztailearen 28an emaniko 720/2004 Foru Aginduaren bidez onetsi zen errepideko garraio publikoaren sektorean antolatzen diren prestakuntza ekintzetarako dirulaguntzen deialdia.

Deialdi horren hirugarren oinarriak xedatzen du eskabideari, beste agiri batzuen artean, erantsi beharko zaizkiola "kasuan kasuko erregistroan inskribatua izatearen egiaztagiria" eta "elkartea edo entitatea eratzeko akta edo eskritura eta estatutuak".

2. Dirulaguntzen onuradun izan daitezkeen eta parlamentariaren galderak aipatzen duen doku-

mentazioa aurkeztu behar duten eskatzaileak honakoak dira, funtsean:

– Garraiolarien elkarteak. Horiek Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuko lanbide erakundearen erregistroan izena emanik egon behar dute.

– Irabazi asmorik gabeko elkarteak. Horiek Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko elkarten erregistroan izena emanik egon behar dute.

– Kooperatibak. Horiek Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuko Nafarroako kooperatiben erregistroan izena emanik egon behar dute.

Hori dela eta, deialdian berariaz adierazten ez bada ere, aski izanen da elkarte edo entitatearen ordezkariak adieraztea eskabidean delako entitate edo elkarte hori izena emanik dagoela aipatutako erregistro horietako batean eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak uztailearen 28an eman eta errepideko garraio publikoaren sektorean antolatzen diren prestakuntza ekintzetarako dirulaguntzen deialdia onetsi zuen 720/2004 Foru Aginduaren eranskinetako hirugarren oinarrian eskatzen den dokumentazioa erregistro horietan dagoela, bai eta dokumentazio horretan ez dela izan aldaketarik, egiaztatu eta kasuan kasuko espedienteari ofizioz eransteko; hartara, eskatzaileak dokumentazio hori aurkeztetik salbuesten da, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legearen 35.f) artikulua ezarri bezala.

3. Garraiolarien eta garraio jarduera lagungarri eta osagarriak egiten dituzten enpresen erregistro orokorra Sustapen Ministerioaren mendekoa da, eta ministerio horretako Lur gaineko Garraioen Zuzendaritza Nagusiak (egun Errepideko Garraioen Zuzendaritza Nagusia) kudeatzen du, Lur gaineko garraioen antolamenduari buruzko uztailearen 30eko 16/1987 Legearen 53. artikuluan eta Garraioen antolamenduari buruzko Legearen Erregelamendua onetsi zuen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren 49. artikuluan xedatuarekin bat.

Horri dagokionez gogorarazi behar da azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 f) artikuluan onartzen den eskubidea aplikatzeko esparruak admi-

nistrazio jardulea, kasu honetan Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa baizik ez duela hartzen, eta ez beste esparru administratibo batzuk.

4. Hurrengo deialdietan adieraziko da berariaz, errepideko garraio publikoaren sektoreko prestakuntza ekintzetarako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan, dokumentazio hori aurkeztetik salbuetsirik daudela dirulaguntzak aurrenekoz eskatu eta eskabideetan adierazten dutenak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zein erregistrotan dauden inskribaturik eta eskatutako dokumentazioan inolako aldaketarik izan ez dela. Diru-

laguntza hauek lehenago ere eskatu dutenendako aski izanen da adierazpen bat izenpetzea esanez dokumentazioak ez duela aldaketarik izan dirulaguntza horien aurreko deialdian parte hartzeko aurkeztu zutenetik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 27an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Altsasuko hegoaldeko sarrera hobetzeko proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Altsasuko hegoaldeko sarrera hobetzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Altsasuko hegoaldeko sarrera hobetzeko proiektuari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Parlamentari honek jakin du Altsasuko Udalak eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Altsasuko hegoaldeko sarrera hobetzeko lanak egiteko akordio bat lortu dutela. Akordio horren bidez, udalak kostuaren % 20 hartuko du bere gain, eta Nafarroako Gobernuak, berriz, % 80.

Horri buruz, parlamentari honek honako xehetasunak jakin nahi ditu:

Lehena. Zein egoeratan dago proiektuaren idazketa prozesua? Ba al da proiekturik? Hala ez bada, noiz egongo da bukatua, departamentuaren aurreikuspenen arabera?

Altsasuko Udalak eta departamentuak adostutako zirriborro bat dago herri horretako hegoalde-

ko sarbideak egiteko proiektua gauzatzeko, baina aurrekontuan dirua egon zain dago.

2004ko abuztuaren 31n, Herrilan zuzendari nagusiak idazki bat igorri zuen Altsasuko Udalera, akordio hori 2005eko aurrekontuaren kargura izenpetzeko adostasuna eskatuz.

Aipatutako hitzarmenaren zirriborroan aurreikuspenen da Altsasuko Udalak garatuko duela hegoaldeko sarbideak eraikitzeko proiektua. Proiektuaren aurrekontuaren % 80 finantzatu du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eta Altsasuko Udalak, berriz, gainerako % 20.

Bigarrena. Lanak betetzeko aurreikuspenak. Noiz bukatuko dira lanak, departamentuaren aurreikuspenen arabera?

Hirugarrena. Lanen aurrekontua eta zer kontusailen kontura egingo diren.

Azken bi puntu horiei erantzunez esan behar dugu proiektua idazteko epea 4 hilabetekoa dela Altsasuko Udalak kontratatzen duenetik hasita.

Hitzarmenaren zirriborroak proiektuaren aurrekontua 1.960.000 eurotara mugatu du.

Ez dago oraingoz denbora plangintzarik hura gauzatzeko, eraikitzeko proiektua izan arte ez baitugu jakinen nolako tramitazio administratiboa beharko duen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 27an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Altsasuko Zuntaipe auzotik ibilgailuak ibiltzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Altsasuko Zuntaipe auzotik ibilgailuak ibiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Altsasuko Zuntaipe auzotik ibilgailuak ibiltzeari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Duela gutxi gertaera larri baten berri izan dugu. Gertaera hori dela eta, Altsasuko Zuntaipe auzoko bizilagunak arriskuan bizi dira, Etxegarate bikoiztu ondoren zerbitzu-bide gisa geratu zen N-1 errepideko zatian ibilgailu asko ibiltzen baitira.

Bistan da beharrezkoa dela lehenbailehen obrak hastea eta bizilagunen segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea, baita trafikoa antolatzea eta Altsasuko auzo horretako bizilagunak modu egokian ibiltzea ahalbidetzea ere.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Lehena. Departamentuak egin al du ikerketarik auzo horretako ibilgailuen trafikoari buruz eta arazo hori konpontzeko neurriei buruz?

Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak oso ongi daki zer arazo sortzen dituen oinezkoen trafikoan Altsasuko Zuntaipe auzoan barna ibilgailu astunak iragatzen.

Era berean, planifikaturik dauzka neurri batzuk arazo horiei aurre giteko, eta horien berri eman die alkateari eta udaleko ordezkariari Herrilan zuzendari nagusiarekin eta Herrilan, garraio eta Komunikazio Departamentuko arduradunekin izandako bileretan.

Bigarrena. Hala bada, zer lan egiteko asmoa du departamentuak eremu hori egokitzeko?

Hirugarrena. Oinezkoentzako sarbideak eta pasabide bat egiteko asmorik ba al du?

Bi puntu horiei erantzunez esan behar dizut Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak honako obra hauek egiteko asmoa duela:

a) 5,5 tonatik gorako ibilgailu astunei eremu horretan ibiltzea galarazteko zutikako seinaleak paratzea, COATRARA ERKUDENGO lotunetik sar daitezten.

b) Espaloiak eraikitzea, oinezkoak Zuntaipeko auzotik N-1 errepidearen gaineko pasabidetik joan daitezten autobien ekialdean dagoen biribilgunea.

Laugarrena. Hala bada, ondoko informazioa: lanen aurrekontua, lanak egiteko epea eta zer kontusailaren kontura egingo diren.

Jarduketa horien aurrekontu zehatza ez dugu jakinen eraikitzeke proiektua erredaktaturik egon arte. Halere, aurreikusirik dago aurrekontu hori izatea, gutxi gorabehera, 72.000tik 84.000 eurora bitartekoa, eta aurreikusten da 2005eko lehendabiziko hiru hilabetean egitea, "Interes orokorreko sarea: autobien gaitzaden bikoizketa" kontusailaren kargura.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 28an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Tuterako Erruki Etxean zerbitzua ematen duen Rehavital enpresari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Tuterako Erruki Etxean zerbitzua ematen duen Rehavital enpresari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako Erruki Etxean zerbitzua ematen duen Rehavital enpresari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Lehendabizi, beste ezer baino lehen esan behar dugu Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak galderan ageri diren gaiei buruz daukan informazioa dela Tuterako Erruki etxeak berak ematen diona, departamentuak entitate horrekin egoitzan eta eguneko zentroan plaza batzuk erresebatu eta betetzeko izenpetua duen itunaren ondorioz.

Aurrekoarekin bat, esan behar dut galderaren testuan esaten den bezalaxe, Rehavital enpresak eman izan dituela zuzeneko laguntza zerbitzuak Tuterako Erruki Etxearen egoitzan bi entitateen arteko kontratu bat dela medio. Kontratu horrek aurreikusten du, bosgarren klausulan, 2002ko ekainaren 1ean emaniko erredakzio berrian, kon-

tratu besterik gabe luzatuko dela urtero abenduaren 31n, urtebeterako, bi alderdietako batek salatu ezean hiru hilabete lehenago. Beraz, kontratu hori ez baita gaur arte salatu, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan dakigunez, beste urtebeterako luzatuko dela ulertuko da aurreko urteetan egin den moduan.

Bestalde, Tuterako Erruki Etxeko gobernu batzordeak ekainaren 22an izaniko bileran Nafarroako Gobernuko ordezkariak izan ote zen galdeztzen da, eta ez bilera hartan ez egiten bide ziren beste batzuetan ez da Nafarroako Gobernuko beste ordezkariak izan, egun ordezkari horiek izendatu gabe baitaude. Hala da, zeren Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren iritzia baita ez dela egokia gobernuaren ordezkariak izatea departamentu honekin edo haren erakunde autonomoekin kontratu harremana duten entitateetan. Gure irizpidea da itundutako entitateetan ordezkariak izanez gero, batzuetan ordezkari horiek epaile eta kide gisa jokatu beharko luketela, eta hori ez zaigu zuzena iruditzen.

Ildo horretan berriz esan behar dugu departamentuak daukan informazioa dela Tuterako Erruki Etxeak emandakoa Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak entitate horrekin izenpetua duen itunean jasotako informazio betebeharrak betetzeko, kontratu harremana duen beste edozein entitateen kasuan gertatzen den bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 29an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioko kantu modalitateko matrikulazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioko kantu modalitateko matrikulazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioko kantu modalitateari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

1. "Pablo Sarasate" goi mailako musika kontserbatorioan 2004/2005 ikasturterako kantuan matrikula egin duten erdi mailako ikasleen matrikulazio datuak hauexek dira.

2004/2005 ikasturteko matrikulazio datuak					
1.a	2.a	3.a	4.a	5.a	6.a
3	7	4	2	3	2

2. Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioko kantuko ikasle baten kostua, gutxi gorabehera, 6.603 eurokoa da ikasturteko. Kostu hori ikasle bakoitzeko irakaskuntzari baizik ez dagokio, kontuan hartu gabe ikastetxearen jardunerako behar diren gastu orokorrak (atezainak, administrazio langileak, ikastetxearen jardunbide, ekipamendu eta mantentzea).

3. Hauxe da Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren eta Pablo Sarasate Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren aurrekontua 2004an:

	"Pablo Sarasate" Nafarroako Goi mailako Kontserbatorioa.	"Pablo Sarasate" Goi Mailako Kontserbatorioa.
1. kapitulua. Langileak		
Irakasleak	1.371.181,99 euro	2.484.672,48 euro
Irakasle ez diren langileak		154.977,48 euro
Ordezkapenak		108.047,39 euro
2. kapitulua. Jardunbidea		180.949,81 euro
6. kapitulua. Ekipamendua		135.162 euro

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 28an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Uxueko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko lanak berriro hasteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Uxueko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko lanak berriro hasteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Uxueko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko lanak berriro hasteari buruz. Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak aurreikusiak dituen jarduketan planaren barruan, zehazkiago Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbaziorako Fundazioaren eskutik, konplexutasun eta munta handiko bi proiektu daude 2005. urteari begira.

Lehenbizikoa da Tuterako katedrala lehengoratu eta haren balioa nabarmentzea eta bigarrena Uxueko Andre Mariaren eliza zaharberritzeko lanaren hainbat alderdiri heltzea.

Tuterako katedraleko esku-hartzean zailtasunak agertu direnez eta kontuan harturik esku-hartze horren sekuentziaren egoera, lehenetasun handia du datorren udan amaitzeak seo horren zaharberritzeko lanak.

Lehenetasun horrek baldintzatzen du, diru aldetik eta giza eta teknika baliabide aldetik, berehalakoan ekitea Uxueko Andre Mariaren eliza lehengoratzeko lanen jarraipenari.

Horrexegatik, 2005eko hasierako hilabeteetan teknikariek ezarriko dituzte epeak eta zehaztuko dute zer nolako esku-hartzea izanen den Uxuen 2005eko udatik aurrera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 29an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, sanferminetako su artifizialak Baluartetik ikusi izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak sanferminetako su artifizialak Baluartetik ikusi izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du San Ferminetan Baluarlean su artifizialak ikusteko izandako saioei buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Jarduera Baluarte enpresak antolatu du, Nafarroako Biltzarren Jauregia eta Auditorioaren kudeaketaz arduratzen denak, eta eraikina egungo bezeroen, balizko erabiltzaileen eta zenbait esparrutan eraginkorrak diren pertsonen artean sustatzeko ekintzen arteko bat da.

Sanferminek, milaka bisitariz gain, hainbat esparru sozial eta ekonomikotako pertsona eragingarriak ere erakartzen dituzte: kazetariak, nazioko eta nazioarteko hedabideetakoak, enpresaburuak, artistak, politikariak... Baluarteak pentsatu zuen, eta asmatu, pertsona horiek bertan izatea baliatu daitekeela eraikina eta kultur ekimenean

esparruan nahiz biltzarrenean dituen aukerak ezaugarazteko. Bestalde, Baluarreak, beste edozein enpresak bezala, jarduerari lotutako bezeroak eta erakundeak ditu eta horiei leialtasuna eta ahalegina eskertu nahi izaten die.

Halaber, elikagaien sektoreko enpresa batzuek dohainik parte hartzea lortu zuten, erkidegoko produktuak sustatzeko helburuarekin. Hala nola, Embutidos Goikoa, Derivados del pato Etxenike, Idiazabal Jatorrizko Deiturako Gaztak eta Bodegas Sarriá. Ekimenak zerbitzarien eta azafaten kontratazioa, apainketa eta gonbidapenak zirela eta eragin zituen gastuak, sozietatearen beraren salmenten eta publizitatearen gastuen kapituluaren kargura ordaindu ziren.

Gonbidapenak honakoei banatu zizkieten: bisitariak, kazetari nazionalak, nazioartekoak (Nazioarteko Prentsa Bulegoaren bitartez) eta lokalak..., enpresaburuak eta atzerriko kontsuletxeetako ordezkariak (Iruñeko hotelen bidez, batez ere), bilkuren eta gertaeren entitate antolatzaileen bezeroak eta ordezkariak, Baluarlean lotutako kultur entitateak, Baluarte Fundazioko enpresak, bertako agintari nagusiak (Nafarroako Gobernu, Nafarroako Parlamentua, Iruñeko Udala, Gobernu Ordezkaritza) etab."

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 29an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, sanferminetako su artifizialak Baluartetik ikusi izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak sanferminetako su artifizialak Baluartetik ikusi izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du San Ferminetan Baluartearen su artifizialak ikusteko izandako saioei buruz. Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Jarduera Baluarte enpresak antolatu du, Nafarroako Biltzarren Jauregia eta Auditorioaren kudeaketaz arduratzen denak, eta eraikina egungo bezeroen, balizko erabiltzaileen eta zenbait esparrutan eraginkorrak diren pertsonen artean sustatzeko ekintzen arteko bat da.

Sanferminek, milaka bisitariz gain, hainbat esparru sozial eta ekonomikotako pertsona eragingarriak ere erakartzen dituzte. kazetariak, nazio eta nazioarteko hedabideetakoak, enpresaburuak, artistak, politikariak... Baluarteak pentsatu zuen, eta asmatu, pertsona horiek bertan izatea baliatu daitekeela eraikina eta kultur ekimenean

esparruan nahiz biltzarrenean dituen aukerak ezaugarazteko. Bestalde, Baluarteak, beste edozein enpresak bezala, jarduerari lotutako bezeroak eta erakundeak ditu eta horiei leialtasuna eta ahalegina eskertu nahi izaten die.

Halaber, elikagaien sektoreko enpresa batzuek dohainik parte hartzea lortu zuten, erkidegoko produktuak sustatzeko helburuarekin. Hala nola, Embutidos Goikoa, Derivados del pato Etxenike, Idiazabal Jatorrizko Deiturako Gaztak eta Bodegas Sarriá. Ekimenak zerbitzarien eta azafaten kontratazioa, apainketa eta gonbidapenak zirela eta eragin zituen gastuak, sozietatearen beraren salmenten eta publizitatearen gastuen kapituluaren kargura ordaindu ziren.

Gonbidapenak honakoei banatu zizkieten: bisitariak, kazetari nazionalak, nazioartekoak (Nazioarteko Prentsa Bulegoaren bitartez) eta lokalak..., enpresaburuak eta atzerriko kontsuletxeetako ordezkariak (Iruñeko hotelen bidez, batez ere), bilkuren eta gertaeren entitate antolatzaileen bezeroak eta ordezkariak, Baluarteari lotutako kultur entitateak, Baluarte Fundazioko enpresak, bertako agintari nagusiak (Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentua, Iruñeko Udala, Gobernu Ordezkaritza) etab."

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 29an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Copas Mauleón

Galdera, Corellako Arte Sakratuko museoa berriz irekitzeko itunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Corellako Arte Sakratuko museoa berriz irekitzeko itunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Corellako Arte Sakratuko museoari buruz. Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernua, Corellako Udala eta Arrese Fundazioa saiatzen ari dira ados jartzen lankidetzat hitzarmen bat izenpetu eta Arrese Museoa zabaltzeko lehenbailehen.

Udalak adierazi du finantzazioan parte hartzeko asmoa duela baina zenbait baldintza betez gero, batez ere Museoan Turismo Bulegoa paratzea eta eliza zenbait ekitalditarako erabiltzea.

Arrese Fundazioa ados dago eskaera horiekin eta bi alderdien artean erabaki dute ordutegi bat ezartzea museorako (oraingoz asteburuetan bakarrik) eta beste bat Turismo Bulegorako.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak hitzarmeneko bigarren zirriborroa prestatu du, alderdi horiek sartuta, egokitzat hartu diren aldaketekin. Halatan, turismo bulegoak erabili beharreko eremua osotara zedarritzea eskatzen da, museoa itxita dagoelarik bertara sartzeari galarazteko, eta udalak elizan gauzatu ahal dituen ekitaldietatik erakusketak kendu dira, museoaren jarduerari eta bildumen kalitatezko izaerari eragin diezaieketela iritzirik.

Bestalde, Kultura eta Turismo Departamentuak uste du funtsezko betebeharrak batzuk badirela, ezin direnak baztertu, honakoak alegia:

– Arrese Fundazioak museoaren gastu aurrekontu bat entregatu beharko du, museorako pentsatu diren mantentze, erabilera eta langileria arloetako baldintzekin bat etorriko dena. Dirusarrera aurreikuspena ere bai.

– Bildumarako segurtasun baldintzak egotea (telebistako zirkuitu itxia, zabalik dagoelarik museoan barna ibiliko den zaindari bat, segurtasun arloko erreforma txiki batzuk).

– Fundazioaren jabetzako piezen eta gordailuan dituen inbentarioa ematea.”

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 29an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Barañaingo Auditorioa fundazioarekin itunik ez sinatzeko arrazoiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Barañaingo Auditorioa fundazioarekin itunik ez sinatzeko arrazoiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Barañaingo Auditorioari buruz. Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

“Nafarroako arte eta kultur entitateekiko hitzarmenak” izenpetzeko 2004ko deialdia Vianako Printzea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak ebatzi zuen, foru agindu bidez, deialdiaren oinarriekin bat eratu zen batzordeak egindako proposamenaren arabera.

Batzordeak proposatu zuen Barañaingo Auditorioa Fundazioak egindako eskaerari ezetza ematea eskatutako puntuaziora ez zelako iritsi. Hona hemen puntuazioa:

	Gehieneko balorazioa	Puntuazioa
-1. irizpidea (izaera eta kalitatea...)	50	10
-2. irizpidea (bideragarritasuna...)	20	17
-3. irizpidea (proiektuen eragina...)	20	14
-4. irizpidea (sendotzea...)	10	8
	100	49

Bigarren galderari dagokionez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak ezagutu eta baloratzen du Nafarroako udalek betetzen duten kultur lana. Horrexegatik argitaratzen du urtero arte eta kultur jarduerak Nafarroako udal eta kontzejuetan batera antolatzeko laguntzen deialdi bat, eta beste bat “Arte eta Kultura” programako jarduerak gauzatzeko; Barañaingo Udalak deialdi horietarako eskaera egin dezake orain ere.

Eskaintzen den kultur programazioa dela eta, ez da Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren betekizuna kultur eragileek sustaturiko eskaintzen kalitatea alderatzea, ikusleena baizik, ikuskizunetara bertaratuz eta ontzat emanez haiek berresten baitute eskaintzen zaienaren kalitatea.

Azkenik, hitzarmen bat izenpetzeko aukerari dagokionez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak aurrerantzean ere deialdi publikoak arautzen dituzten xedepanak aplikatuko ditu, Nafarroako arte eta kultur entitateekin hitzarmenak izenpetzeari dagokionez ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 29an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, “El Bocal” interes historiko eta kultureko multzo deklaratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak “El Bocal” interes historiko eta kultureko multzo deklaratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du “El Bocal” interes historiko eta kultureko multzo deklaratzeari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Fontellasko “El Bocal”, Aragoiko Ubide Inperiaren hasiera, interes kultureko ondasun deklaratu zuen urtarrilaren 23ko 157/2004 Errege Dekretuak. 2004ko otsailaren 5eko Estatuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

Deklarazioa Kultura Ministerioak egin beharrekoa zen, halaxe xedatzen baitu Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 11.1 artikulua. Hori dela eta, Kultura eta Turismo Departamentuak deklarazioaren espedienterako behar zen dokumentazio guztia igorri zen ministeriora.

Interes kultureko ondasun oro, kultur ondarea den aldetik, baliabide turistikoa da, baina ez dago “interes turistikoko ondasun” formalki deklaratzeko modurik, eta beraz ezin da ezer egin alde horretatik.

Nolanahi ere, “El Bocal” garrantziko baliabide turistikoa denez, sustapen turistikoko ekintzen xede izaten da. Ezinezkoa da ordea inolako eskuhartzerik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren jabetzakoa delako.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 29an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, A-15 autobideko txartelari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak A-15 autobideko txartelari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo

Suberbiola andreak galdera egin du Audenasak A-15 autobidean erabiltzeko emandako txartelen iraungipenari buruz, eta txartel horien ezaugarriez eta erabileraz, baita titularren eskubide eta betebeharez ere. Autopistas de Navarra, S.A. (Audenasak) enpresa emakida-hartzaileari informazioa eskatu ondoren, hauxe da Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Audenasak A-15 autobidean erabiltzeko emandako txartelak iraungitzean sorturiko egoera ikusirik, eta txartel horien ezaugarriak eta erabilera, baita titularren eskubide eta betebeharrak ere zein diren argitze aldera, hauxe jakin nahi dut:

1., Zer baldintza eskatzen dira txartelaren titularraren izateko eta zenbat balio du?

Ez da inolako baldintzarik eskatzen Audenasaren txartelaren titularraren izateko. Aski da eskatzea Nortasun Agiri Nazionalaren datuak emanez.

Txartelak ez du ezer balio.

2. Zer baldintza eskatzen dira txartela berritzea? Izaera automatikoa al du? Edo, kasua bada, nork eta nola erabakitzen du txartela ez berritzea? Titularrari berri ematen al zaio txartela bertan behera utzi edo iraungi aurretik?

Txartela besterik gabe berritzen da, salbu eta aurreko sei hilabeteetan behin ere ez bada iragan A-15 autobidean barna.

3.- Zer erantzukizun hartu du bere gain Audenasak titularrarekiko, txartela ez badio berritzen eta titularrak autobidea erabiltzen badu?

Audenasak ez du inolako erantzukizunik hartzen bere gain txartela berritzen ez bada. Txartela, bertan ageri denez, Audenasarena da, eta enpresak eskubidea du hura noiznahi itzul dakion exijitzeko.

4.- Nafarroako Gobernuak proposatu edo onartu al du akordiorik txartela emateari, kostuari, berritzeari eta txartela izateko eskubidea izateko egin behar den gutxieneko bidaia kopuruari buruz?

2001eko martxoaren 23an Nafarroako Gobernuak eta Audenasak akordio bat izenpetu zuten "Nafarroako autobidearen lehen fasea eraiki, zaindu eta ustiatzeko emakidaren kontratuaren aldaketan" egiteko; 4. klausulan hauxe ezartzen du:

"h) A-15eko txartela eman eta berritzeko baldintzak Audenasaren administrazio kontseiluak erabakiko ditu eta Nafarroako Gobernuak onetsitako deskontu politika jasoko dute."

5.- Bidesariaren beherapena bidaiaria nora doan kontuan hartu gabe egiten da, autobideak Nafarroan duen zati osoan? Horrela ez bada, nola aztertu eta ebazten da ordainketa, eta nola jakinarazten zaio titularrari?

A-15 autobideko bidesarien deskontuak dira kontratua aldatzeko Akordioaren lehen estipulazioan 2000ko otsailaren 28an ezarritakoak eta aplikatzen dira edozein dela ere bidaiaren destinoa, salbu eta itzulerako bidaia 72 ordu iragan aurretik egiten bada, kasu horretan bidaia hori doanekoa baita.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko irailaren 29an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, hirutik sei urtera bitarteko haurrentzako estimulazio goiztiarrekoko tratamenduari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak hirutik sei urtera bitarteko haurrentzako estimulazio goiztiarrekoko tratamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 20ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras

Castellano andreak galdera egin du estimulazio goiztiarrekoko tratamendua jasotzen duten haurrei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Estimulazio goiztiarra jaso dezakeen patologia duten haur guztien diagnosia eta balorazioa egiten da Bideko Ama Birjina Ospitaleko Pediatria eta Errehabilitazio Zerbitzuan.

Otik 3 urtera bitarte, haur hauek honako tratamendua jaso dezakete:

1) Fisioterapia Bideko Ama Birjina Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuan.

2) Fisioterapia, logopedia, psikomotrizitatea Gizarte Ongizatearen Departamentuaren zentroetan edo zentro itunduetan.

Eskola adina hasten denean, 3 urterekin, eta haurrak eskolara joateko modua duenean, fisioterapiako tratamendua Hezkuntza Departamentuaren mendeko fisioterapeuta batek egiten du. Haurraren ezgaitasuna dela eta eskolara joaterik ez badu, ikastetxe berezietara bideratzen dugu (esate baterako, Burlatako Andre Maria, Andrés Muñoz).

Errehabilitazio Zerbitzuak aldizkako azterketak egiten ditu hazkunde garai osoan zehar gerta daitezkeen alterazio ortopedikoak kontrolatzeko, toxina botulinikoa aplikatzeko eta fisioterapia trata-

mendua eskaintzeko horretarako premia baldin badago.

Esandakoarekin bat, departamentu honen iriziz zerbitzua ongi ematen da Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Osasun Departamentuen artean banatuta.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko urriaren 5ean

Osasun kontseilaria, María Kutz Peironcely

Galdera, Odol Bankuak odol-emateetan darabilen irizpideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Odol Bankuak odol-emateetan darabilen irizpideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 20ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako Odol Bankuan odola emateko sexu joerari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Osasun Departamentuak gertatutakoaren berri izan zuenean, Odol Bankura jo zuen eta odol-emaleei harrera egiten dieten langileei galdetu zitzaizen horretaz, baina inork ez zekien ezer.

Odol Bankuaren irizpidea ez da odol-emaileak atzera botatzea euren sexu-joeragatik. Are gehiago, 2003ko otsailean, Nafarroako Odol Bankuko Odol ateratzeen arloko arduradunak dokumentu bat prestatu zuen hepatitis eta hies eritasunei buruz, eta bertan zehazten zen berriz ere zein ziren eritasun horien birusek infektatzeko arriskua zuten jokabideak eta egoerak eta odol-emaileekin ezarri beharreko irizpidea. Ez da inolaz ere bereizketarik ezartzen harreman homo edo heterosexuaren artean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko urriaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, larrialdietan ematen diren antisorgailuen tratamenduaren doakotasunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak larrialdietan ematen diren antisorgailuen tratamenduaren doakotasunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 27ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du larrialdietan ematen diren antisorgailuen tratamenduaren doakotasunari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Larrialdietako antisorgailuen tratamendua jarduketa protokolo bati jarraiki ematen da. Protokolo horrek planteatzen du tratamendu hori dohainik

emanen dela emakumeari laguntzeko zentroetan, eta zentro horietako hezitzailearen kontsultara bideratu bidenabar, metodo hori ez dadin bihurtu antisorgailu ohikoa. Asteburuetan tratamendu hori ospitaleetako ginekologiako larrialdietako zerbitzuetan ematen da, emakumeari laguntzeko zentroak itxirik daudelako.

Jarduteko modu hori duela 3 urte inguru ezarri zen Iruñeko eta Iruñerriko emakumeari laguntzeko zentroetan eta Bideko Ama Birjina Ospitalean.

Jarduketa baloratu ondoren, planteatu zen Nafarroako gainerako osasun eskualdeetara zabaltzea, zentroak antolatu ondoren haien laguntza maila, ezaugarriak eta abar kontuan harturik. Halatan, duela urtebete inguru Lizarrako eskualdean ematen da eta hemendik gutxira Tuterakoan ere bai.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko urriaren 4an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria Nekazaritza Arloko Batzarrera joan ez izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria Nekazaritza Arloko Batzarrera joan ez izanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 27ko 79. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 7an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria irailaren 13an Bartzelonan eginiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Arloko Batzarrera joan ez izanari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

1. Zein diren Nekazaritza kontseilaria aipatu batzarrera joan ez izateko arrazoiak.

Kontuan harturik Erriberan irailaren 6an eta 7an izandako euriteak, soroetan eta nekazaritzako azpiegituretan kalte handiak eragin zituztenak, kontseilari honek pentsatu zuen lehentasunezkoa zela kalteak ebaluatu eta neurriak proposatzeko lanak koordinatzea Nafarroako Gobernuaren eta departamentuaren beraren esparruan. Horretarako kontuan hartu zen gainera aipatutako arloko konferentzia horren edukia, a priori, irailaren 3an Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendari nagusia bertan zela egindako arloko batzordearen eduki berdina zela.

Euriteek sortutako egoerari buruzko informazioa eta laguntza eskaera kontseilariak berak

helarazi zizkion Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura ministroari irailaren 23an izaniko elkarrizketan.

2. Ea kontseilaria bere departamentuko beste norbaiten esku utzi ote zuen batzar horretara joatea.

Ezinezkoa da inoren esku uztea, Nekazaritza eta Landa Garapeneko arloko Konferentziaren barne araudiak, 3.4 artikuluan ezartzen duelako arloko konferentziako kideek ezin izanen dutela euren ordezkaritza beste inoren esku utzi.

Iruñean, 2004ko urriaren 4an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

Galdera, Coebro eraikuntza-enpresaren eta Patali sustatzailearen arteko gatazkari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak Coebro eraikuntza-enpresaren eta Patali sustatzailearen arteko gatazkari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 20ko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du "Senda Viva parkeko "Coebro" eta "Patali" enpresen arteko gatazkari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

1. galdera

Badago, egon ere, "Patali" eta "Coebro" enpresen arteko gatazka bat. Bi sozietateek uste dute besteak dirua zor diola, hau da, bakoitzak ulertzen du bestearen hartzekoduna dela. Egoera horren aurrean eta bi enpresek izenpetu zuten kontratuari jarraikiz, Bartzelonako arbitraje auzitegira igorri dute afera, eta arbitroak erabakiko du desadostasuna laudoaren bitartez.

Parque de la Naturaleza de Navarra, S.A., (Parquenas) enpresak ez du zerikusirik gaiarekin, bi horien arteko kontratutik aparte baitago, baina horrek ez du esan nahi erantzukizun ekonomikorik ez duenik azpikontratistekiko, "Patali" sozietateari, kontratistari alegia, zor dionaren mugarekin.

Hori dela eta, ez dakigu zenbat eta zein diren gatazka honek kaltetu dituen enpresak, "Parquenas" enpresaren aurrean erantzuten duena "Patali" da, ez "Coebro".

2. galdera

Nafarroako Gobernuaren jarrera, gai honetan, horretan duen erantzukizunaren arabera da, aurreko atalean behar bezala azaldu duguna, alegia Sodena sozietate publikoa merkataritzako bi sozietate pribaturen artean irekitako arbitraje prozesutik kanpo dagoela. Edozein modutan, Sode-nak itxarongo du laudoa eman arte behar diren erabakiak hartzeko, eta Parque de la Naturaleza de Navarra, S.A. enpresa pribatuaren administrazio kontseiluak hartuko duen jarrera bere eginen du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko urriaren 6an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Zangozako Andre Mariaren fatxada erromanikoa zaharberritze-ko lanei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak Zangozako Andre Mariaren fatxada erromanikoa zaharberritze-ko lanei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko irailaren 13ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko urriaren 8an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak galdera egin du Zangozako Andre Mariaren fatxada erromanikoa zaharberritze-ko lanei buruz. Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Ondare Historikoaren Zerbitzuak laster egingen du presako esku-hartze bat Zangozako Andre Mariaren portalean.

Madrileko Unibertsitate Politeknikoko Meatze-ingeniarrien Goi mailako Eskola Teknikoko Minerologia eta Petrologiako Katedrak eginiko azterlan sakon baten berri izan genuen, departamentuak eskaturik, portale berezi horren egoera kaltetu dezaket balizko arrazoiei buruz, eta erabaki genuen arrazoi horietako bati ekitea (beharbada garrantzitsuena, horrexegatik hartuko da arazoari berehalakoan aurre egiteko neurri bat), alegia iragazi egiten den hezetasuna; horretarako, saneamendua erraztuko da inguruko zanga baten bidez iragazte horiek ekiditeko.

Esku-hartzearen ondotik eta ikusirik emaitzak eta harriaren portaera Ondare Historikoaren Zerbitzuko teknikariek erabakiko dute aurrerago zer neurri gehiago hartu. Horiek 2005. urtean gauzatu dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko urriaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	